



## Ayuntamiento de Puente la Reina/Gares Garesko Udala

### “JAZZ ZUBIPEAN” JAIALDIAREN KARTEL LEHIAKETA

Garesko Udalak Jazz Zubipean 2022 Jaialdirako kartel lehiaketa antolatu du.

Kategoria bakarra ezartzen da:

1. 16 urtetik gorakoentzat, **200 euroko** sariarekin.

- Kartelak 1000 pixel izan beharko ditu gutxienez, eta bakarrik formato digitalean (JPG) aurkeztuko da.
- Testua elebiz egon beharko da (euskara-gaztelania)
- Kartelak testu hau izan beharko du:

**Festival de jazz Zubipean 2022 Zubipean jazz jaialdia**

**Puente la Reina/Gares**

**13/8 XXXXXXXXXXXXX (artistaren izenerako tokia)**

**20/8 XXXXXXXXXXXXX**

**27/8 XXXXXXXXXXXXX**

Garesko Udaleko webgunean eskuragarri dagoen honako irudia egon behar da nahitaez (<http://www.puentelareina-gares.es/>):



- Kartelaren beheko aldean lerro zuri bat erreserbatu behar da jaialdiaren babesleak jarri ahal izateko. Honetaz aparte, kartelaren autorea bere baimena ematen dio antolakuntzari kartela berrantolatzeke eta babesleak, laguntzaileak, datak eta ekitaldi paraleloak kartelan txertatzeko. .

- Edozein teknika edo estilotako kartelak onartzen dira eta egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

- Kartelak posta elektronikoz bidaliko dira, gaian “**2020 Jazz Zubipean kartel lehiaketa**” adieraziz.kartela **JPG. formatoan** erantsiko da, fitxategi batean. Emailean, gainera, egilearen datuak (izena, abizenak, NAN zenbakia, telefonoa eta helbidea) egon beharko dira .

- Irabazle suertatzen den kartela, 2020. urtean zehar, Jaialdiko karteleria ofizialetan erabili ahal izango da, epaimahaiak horrela erabakitzen badu. Garesko Udalak eskusibotasuna izango du kartelarekiko, eta “Jazz Zubipean” Jaialdia sustatzeko erabiliko du bakarrik.

- Antolakuntzak obrak onartzeko eskubidea du, hauek aipaturiko gaiari erreparatzen badiote eta oinarrizko irizpide teknikoak betetzen badituzte.
- Lanak aurkezteko epea **maiatzaren 12an**, amaituko da, 22:00etan.
- Antolakuntzak 4 kartel aukeratuko ditu aurkeztu diren guztien artean, eta hauek, **maiatzaren 16tik maiatzaren 22 artean** herri-bozketa bidez aukeratuko dira Udaletxeko weborrian.
- Lehen aukeraketa egiteko orduan, antolakuntzak Garesko tokiko erreferentziak baloratuko ditu.
- Kartel irabazlea **maiatzaren 24an** iragarriko da udal-webgunean, sare sozialetan, eta udaleko iragarki tauletan.
- Kartelak Garesko Udalera bidali behar dira, posta elektronikoaren helbidera: [administracion@puentelareina-gares.es](mailto:administracion@puentelareina-gares.es).

Puente la Reina/Gares 2022ko apirilaren 28an